

# ELKARREKIN BIZI

BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOA

---

ZAINZA ETA KOMUNITATEA

---

*[BEHIN BEHINEKO BERTSIOA]*

# ELKARREKIN BIZI BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOA ZAINZA ETA KOMUNITATEA

## Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
Testuingurua: Belaunaldi arteko etxebizitza kolaboratiboa.....	3
Nola ulertzen dugu zaintza?.....	3
Nola ulertzen dugu komunitatea?.....	4
Senior taldearen zaintza plan espezifikoa.....	4
2. BALORE AMANKOMUNAK.....	5
3. ESPAZIO KOMUNITARIOAK.....	6
Espazioak eta erabilerak.....	6
Espazioen izaera.....	6
Espazio komunitarioen erabilerarako irizpideak.....	7
4. JARDUERA KOMUNITARIOAK.....	8
Komunitatearen baitan burutuko diren jarduerak.....	8
Auzoari begirako jarduerak.....	8
5. ANTOLAKETA ETA EKINTZA PLANA.....	10
Antolaketa irizpideak.....	10
Ekintza plana.....	10

---

## 1. SARRERA

---

### Testuingurua: Belaunaldi arteko etxebizitza kolaboratiboa

Proiektu hau bi taldez (adin tarte gabeko taldea eta senior taldea) osatutako etxebizitza kolaboratiboa sortzeko egitasmoa da.

Ezinbestean, etxebizitza kolaboratibo batetaz ari garenean, izaera komunitarioa izango duen proiektu batetaz ari gara.

Etxebizitza mota honetan, hain zuzen ere, elkarbizitza unitateen espazioa murriztu, bizilagunekin konpartituko diren espazioak eta ondorioz, harremanak handitzea bilatzen bai da.

Proiektu konkretu honen kasuan, behar espezifikoak izango dituzten bi giza-taldeetatik abiatzen da proiektua. Behar horiei erantzuteko, talde bakoitzaren funtzionamendua edota diseinatuko diren espazio propioak sortuko badira ere, denek komunitate bakarra osatuko dute.

Dokumentu honek izaera komunitario hori definitzen hasteko balio behar du. Hausnarketa eta definizio hori burutzeko, elkar zaintzeko behar eta erronkaz abiatu gara.

### Nola ulertzen dugu zaintza?

Zaintza modu integralean ulertzen dugu:

- arlo fisikoan: elikadura, soinketa, aisialdi eta kultur jarduerak, akonpaiamendua...
- arlo sikikoan: oreka emozionala, etxeko giro ona, zailtasun momentuak askatzeko tresnak izatea
- arlo materialean: arkitektura egokia norbanakoen zein espazio kolektiboetan
- arlo izpiritualean: norbanakoen sinismenekiko errespetua eta hausnarketarako espazioak.

Hauetaz lortzeko elkarbizitzan fokua jarri behar dela diogu eta elkarri lagunduko dion taldea/komunitatea indartu behar da.

## ELKARREKIN BIZI BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOA ZAINZA ETA KOMUNITATEA

Pertsonen arteko harreman onak eta errespetuaz gain, bestearekiko arduran oinarrituko diren erlazioak sustatu behar da, ondare erlazonala ondare publiko bezala ulertuz: zaintza erronka komunitarioa zein publikoa dela azpimarratu nahi dugu.

### **Nola ulertzen dugu komunitatea?**

Komunitatea elkarrekin aritzeko borondatea duen giza talde bezala ulertzen dugu, taldeko beste pertsonetikiko konpromezua hartzen duena.

Baina harago doa talde honen izaera komunitarioa, inguruan dituen pertsonak, komunitate zabala, kontutan hartzen baitu ere.

Etxebizitza kolaboratiboaren komunitatea bertan bizi diren pertsonen gain, auzokoek ere osatuta izateko bokazioa du proiektuak.

Zentzu honetan, auzoan inplikazioa eta eragin positiboa izateko ekintza planteatzen da, zaintzaren aipatutako ikuspesgiarekin bat eginez.

### **Senior taldearen zaintza plan espezifiko**

Aurretik aipatu den bezala, bi taldek osatzen dute komunitatea eta Senior taldeak behar espezifikoak izango ditu, dependentzia edo hauskortasuna kontutan hartuta, zerbitzu eta tresna berezituak beharko ditu.

Zentzu honetan, Senior taldearentzako zaintza plan espezifiko landu da hainbat zerbitzu, tresna edota antolaketa eredu definituz, talde honen funtzionamendu propio eta egokia zihurtatzeko.

---

## 2. BALORE AMANKOMUNAK

---

Berdintasuna, sostengarritasuna, autogestioa, komunitatean txertatzea, elkar-zaintza, askatasun ideologikoa, auzolana eta hizkuntza eskubidea bezalako baloreak elkarbanatzen dituzte Etxebizitza Kolaboratiboa sortzeko prozesuan parte hartu duten pertsonak.

Honen adierazgarri da ondoko esaldi hau: "Talde honen partaideok guztion artean eraiki nahi dugun proiektua elkar zaintzan, sostengarritasunean eta berdintasunean oinarrituko dugu, elkar errespetatuko dugu bakoitzaren ideologia eta autogestioaren bitartez komunitatean txertatu eta auzolana bultzatuko dugu" zeinak proiektuaren izaera zein baloreetan oinarritzea nahi duten azaltzen duen.

### 3. ESPAZIO KOMUNITARIOAK

Espazioen inguruko lanketa espezifikoak etxebizitzaren programa arkitektonikoan lantzen da baina Zaintza eta Komunitateaz aritzerakoan, garrantzitsua iruditu zaigu espazio komunitarioetaz hitz egitea, hauek izango bai dira komunitatea indartzeko tresna ezinbestekoak.

Espazio hauen bokazioa erlazioak sustatzea izango da eta hasieran aipatutako Zaintza ikuspegia bermatzen laguntzea.

#### Espazioak eta erabilerak

Hainbat espazio komunitario proposatu dira, kasu batzuetan giza-talde espezifiko batentzako bideratuak izango direnak, besteetan komunitate osoarentzako eta baita auzoari irekiak izango direnak:

	Giza-talde espezifikoentzako	Komunitate osoarentzako	Auzoari irekiak
Egon gelak			
Jangela			
Terraza eta baratza			
Gela polibalentea eta barra			
KM0 denda			
Erizaintza gela			

#### Espazioen izaera

Etorri daitezkeen egoera desberdinetara moldagarriak izatea bilatuko da.

Eragile eta erakundeekin koordinazioa zerbitzuak eta jarduerak eskaintzeko.

## ELKARREKIN BIZI BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOA ZAINZA ETA KOMUNITATEA

### Espazio komunitarioen erabilerarako irizpideak

Garrantzitsua izango da agenda/egutegi bat osatzea eta espazioak erabiltzeko prozedura ezarri zein koordinazioa eramatea.

Espazioak saturatutak ez egotea saiatu behar da, disponibilitatea izateko "azken momentuan" gauzak egin ahal izateko edo besterik gabe, espazioak libre egoteko.

Espazio bakoitzak logistika/koordinazio talde bat izatea proposatzen da (kargu rotatiboak izatea ahal den heinean) eta auzotarrak bertan inplikatu ahalko dira.

Egin behar den erabileraren araberako irizpideak jartzea proposatzen da (ez da berdina auzotarrek antolatutako ekitaldi ireki bat edo ikastaro bat adibidez).

Mantenurako ekintzak eta zereginak kolektiboka (senior eta adin mugarik gabekoak) antolatzea planteatzen da, kolektibo bakoitzak irizpide/modu desberdinak baliatu ahalko dituelarik.

#### 4. JARDUERA KOMUNITARIOAK

Jarduera komunitarioek hiru zutabe izan beharko dituzte:

- Zaintzaren ikuspegia
- Deskribatu diren baloreak aintzat hartzea
- Komunitatearen, zentzu zabalean, eraldaketarako bokazioa.

Hauk antolatzeko komunitatearen baitan burutu beharreko jarduerak eta auzoari begirakoak desberdindu ditugu.

##### Komunitatearen baitan burutuko diren jarduerak

	Azalpenak
Bazkari edo afariak	Komunitate osoarentzako bazkari edo afariak puntualak antolatzea aurreikusten da. Senior taldearen kasuan bazkaria eguneroko zerbitzu bezala planteatzen dira.
Konpainia egitea	Nahi ez den bakardadea ekiditeko
Aisialdi eta kirol eskaintza	Komunitatearen baitan jolasak, tailerrak eta bestelakoak antolatuko dira, bakoitzaren jakintzak aprobetxatuz.
Ospakizunak	Urtebetetzeak, jai egun desberdinak ospatzeko ekimenak.

##### Auzoari begirako jarduerak

	Azalpenak
Auzoko eragileetan parte hartzea	Auzo elkarte, jai batzorde edo bestelako eragileetan inplikatzeko aurreikusten da. Auzoa hobetzeko aldarrikapen kanpainetan inplikazioa ere garrantzitsua



ELKARREKIN BIZI BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOA  
ZAINZA ETA KOMUNITATEA

	izango da.
Laguntza/aholkularitza	Bi zentzutan ikusten da etxebizitza kolaboratiboa erreferentziazko puntua izan daitekeela: nahi ez den bakardadea ekiditeko babesa eskaintza eta etxebizitza kolaboratiboen sustapenerako aholkularitza.
Haurren zaintza	Komunitateko zein auzoko haurren zaintza zerbitzu puntuala eskaintzea aukera bezala ikusten da.
Jarduera sozio-kulturalak	Auzoa zein herritar guztiei irekitako jarduera sozio-kulturalak antolatzea aurreikusten da, besteak beste, urtean behin, ate irekiak antolatzea, etxebizitza eredu alternatiboen inguruko jardunaldiak edo bestelako eskaintza kulturala.

---

## 5. ANTOLAKETA ETA EKINTZA PLANA

---

### Antolaketa irizpideak

Badaude lan batzuk errazagoak izan daitezkeenak denboran neurtzea baina edozein kasuan, zaintza eta komunitateari lotutako lanak denboran neurtzea saiatu behar da.

Zaintza eta komunitateari eskaintzen zaion gutxieneko denbora ezarri behar da. Funtzionamendu eta antolaketa lanak (printzipioz derrigorrezkoak izango direnak) ez dira hemen konputatuko.

Gutxieneko orduetaz gain, denbora banku bat planteatu daiteke, ekimen osagarri bezala.

### Ekintza plana

Aurre-lanketa fasean, garrantzitsua izango da kolektiboen arteko harremanetan sakontzea. Kontutan hartu behar da, Udaletxeak lur saila lehiaketara ateratzen duenean, proiektu amankomuna aurkeztu beharko dela.

Zehazten denean, etxebizitza konpartituko diren pertsonak/taldeak, harremanetan sakontzeko lanketa burutu beharko da. Elkarbizitza arautegi bat landu beharko da.

Auzoko elkarte, ekitaldiak ezagutu behar dira, eta harremanak ehuntzen hasi. Proiektua auzoan aurkeztu eta bertako problematikak ezagutu beharko dira.